

## GERHARD BÄHR ETA EUSKAL HERRIA

96-06-24

*José Luis Ugarte Garrido*

Hitzaldi labur honetan Gerhard Bähr-en bizitzaren etapa bati soilik lotuko natzaio: 1919tik 1926ra doan tarteari hain zuzen. Izan ere, aldi horretan harreman estuak izan zituen Gerhard-ek Euskal Herriarekin eta euskal munduarekin. Erabili ditudan iturriak hauetxek izan dira: Gerhard-ek Azkuerekin izandako korrespondentzia (Euskaltzaindian gordetzen dena), Julio de Urkijorekin izandako korrespondentzia (Gipuzkoako Foru Aldundian gordetzen dena), Euskaltzaindiako Batzar-agiriak eta gurekin dagoen Mercedes Föll-ekin izandako elkarrizketak.

Gerhard Bähr sortzez legazpiarra zen eta 13 urte arte Legazpiko Udana auzoan bizi izan zen. Hala ere, itxura denez, ez zen gehiegi murgildu giro euskaldunean. Izan ere, oinarrizko heziketa Udanara etorritako maixu-maistra alemaniarrengandik jaso zuen, Brinkolako abade-etxean zertxobait ibili bazen ere. Berak aurrerago aitortuko zuenez, umetan alemaniera eta gaztelera ikasi zituen, ez ordea euskara. Eta hamairu urterekin, berriz, Alemaniara joan zen ikasketa ertainak burutzera, handik aurrera Legazpira udako oporraldietan itzuliz.

Alabaina, Munduko Lehen Gerratearen ostean, 19 urte zituela, Legazpira itzuli behar izan zuen, halabere, denboraldi luze baterako. Olaberri auzora oraingoan, alemaniarrek gerra galdu zuten zutenez guraso eta senideak Udantatik bota egin baitzituzten. Aldi honek haren bizitza markatu zuela esan liteke. Olaberrin, anai-arreba txikien irakaskuntzaz arduratu zen, eta bide batez euskara ikasten hasi, hizkuntzak ikastea gogoko baitzuen. Eta denbora gutxian euskara ikasi ez ezik Euskaltzaindiarekin harremanetan ere jarri zen. Honela idatzi zion 1920ko uztailaren 13an Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue euskaltzain buruari Olaberritik: *“Euskera ta beste izkeraendako arratsaldea baño besterik etzait gelditzen. Ia arrastioro jostun batekin euskeraz ordu batez (geyago naita ere ezin) jardun oi det, ta berari esker apurtxo batean izketan itzegin ahal izaterañoako aurrepenak egin ditut”*.

1921eko otsailean, Euskaltzaindiako ohiko batzarrerara Gerhard Bähr-ek Legazpiko aditzaire buruz egindako lan bat bidali zuen. Lan hark eragindako inpresioa hain ona izan zen, ezen argitaratzea ez ezik *“jaun argitsu ori euskaltzain urgazle (laguntzaile) izentatzea”* ere erabaki baitzuen Euskaltzaindiak.

## Kimika ikastera

1921eko apirilean, Legazpin bi urte pasa eta gero, Gerhard Bähr Alemaniako Göttingen hirira joan zen ikasketekin segitzera, bertan Kimika ikasketak hasi zituelarik, aitaren aholkuari jarraituz. Baina Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue konturatuta zegoen Gerhard Bähr-en talentuaz eta lan batzuk agindu zizkion, Alemanian egin zitzaizkien. Itzulpenak ziren lehenengoak: garai hartan euskal hizkuntzaz arduratzen zen Schuchardt hizkuntzalari alemaniarren idazlan batzuren gaztelarazko itzulpenak, hain zuzen. Lan horiek ordainduak ziren.

1921eko urte horretan, halaber, RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria zen Julio de Urkijorekin harremanetan jarri zen. Modu honetan idatzi zion Gerhard-ek azaroaren 27an Göttingen-etik: *“Le agradezco además su lisonjera invitación de mandarle algún artículo en castellano o vascuence para su Revista, que acepto muy gustoso”*. Kontutan izan behar dugu 21 urte besterik ez zituela orduan.

## Lehenengo argitalpena

1922. urtean EUSKAL ESNALEA aldizkarian lehen euskal idazlana argitaratu zuen, Alemanian egiten ari zen ikasketekin lotuta zegoena: *“Uaño naiz xirietaz”* (Sobre bacterias y bacilos, alergia). Euskara ederki menperatzen zuela ikus daiteke idazki horretan. Baina, hurrengo ikasturtean, Kimika ikasketak alde batera utzi eta hizkuntza modernoak (frantsesa eta ingelesa, batez ere) ikasteari ekin zion. Bestalde, urte horretako udako oporretan Azkuek agindutako lanak burutu ahal izan zituen.

1922ko azaroaren 27an Euskaltzaindiaren osoen bilkuran Gerhard Bähr bekatzea erabaki zen eta *“Erizkizundi Irukoitza”*-rako Gipuzkoako datuen bilketa haren gain uztea. Gerhard-ek gogo onez onartu zuen lan eskaintza hori (diru premian ere baitzegoen, gurasoen egoeragatik), eta hurrengo urteko udako oporretan Euskal Herrira horretarako etorri zen. Aita-amak eta anaia txikiena Ormaiztegin bizi ziren ordurako.

## Langile nekaezina

Horrela bada, 1923ko udara osoa Euskal Herrian bota zuen, batera eta bestera, 60 herritan galdeketak eginez. Lan izugarria egin zuen, kontutan hartuta garai hartan kotxerik ia ez zegoela eta herri eta baserri guztietara ailegatzeko bizikleta eta trena besterik ez zituela erabili. Benetan aparteko sasoi eta diziplina erakutsi zuen.

1924eko udaran ere Euskal Herrian ibili zen, eta, oraingoan, Gipuzkoako 40 herritako adizkerak biltzen. Bilketa lan horiek RIEV aldizkariak argitaratu

zituen 1926 eta 1935 bitartean. Hala ere, baserrietara egiten zituen bixitak informazio gehiago jasotzeko ere aprobetxatzen zuen, eta adizkeraz gainera, material etnografiko asko bildu zuen, handik urte batzutura argitaratuz joango zena. Azkuek, Gerhard-ek lanerako zuen gaitasunaz harrিতuta, honela idatzi zion behin: *“Lanik egin gabe ezin zu egon. Emengo lanak basauririk basauri ibili ta adizkiak biltzeak kalte egin-bearren badaiteke zuri on andia egited”*. Beste batean, berriz: *“Atsedean piska baten duin zera eta zure onerako esaten dizut, otoi! artu zazu bestela gazterik zaartuko zera”*.

Gerhard Bähr-ek, ordea, ez zuen euskarazko ikerlanak eta bere goi-mailako ikasketak aldiberean aurrera eramateko arazorik, 1925eko urtarrilaren 31ko gutun honetan nabari denez: *“Ikaskuntza asita dago ta gogor ekiten diot lanari, ostaroan edo, azterketak jasan gogo naiz”*.

1925eko udazkenean, Gerhard Bähr Euskal Herrian zela badakigu, Euskaltzaindiako bi bilkuran parte hartu baitzuen.

### **Euskaltzain Osoa izateko proposamena**

1926ko urtarrilaren 2an Azkuek Gerhard Bähr-i idatzi zion euskaltzain osoa izateko proposamena luzatuz, eta lizentziatutakoan Euskal Herrira etortzeko nahia azalduz. Bähr-ek, ordea, astun zeritzon euskaltzain karguari, oso lanpeturik baitzebilten eta konpromezu franko ekar zezazkiokelako, Julio de Urkijori idatzi zion gutunean ikusten den bezala: *“Yo creo que en mi modesta esfera de colaborador científico podría trabajar por el vascuence tanto fuera de la Academia como siendo académico de número. Opino que (...) la labor de la Academia seguirá siendo literaria y de investigación reservándose los serios estudios científicos más bien para el extranjero...”* Azkenik, ez zuen kargua onartu.

### **Aitaren heriotza**

1926ko otsailean, Ormaiztegin bizi zen Friedrich Bähr (Gerhard-en aita) hil egin zen, eta ama alarguna, bakarrik geratu zenez (seme-alaba guztiak Alemanian), jaioterrira itzuli zen. Gertakari honek eragin handia izan zuen Gerhard-engan, ezen Euskal Herrira etortzeko arrazoi nagusienetako bat gurasoak baitziren. Eta, horrela, aitaren heriotza gertatuz gero Euskal Herrirako joan etorriak asko urritu ziren. Urte horretan, gainera, lizentziatu egin zen eta behin-behineko irakasle lana Alemanian topatu zuen. Harako jarri zen, Azkueren nahigaberako.

Dena den, portaera horrek ez zuen hemengo gauzak baztertu zituenik adierazi nahi, ez eta gutxiagorik ere. Aitzitik, euskarazko lan garrantzitsuenak gerorago argitaratu zituen. Alemania aukeratu zuen, ordea, bizi izateko.

Gainera, gerora Euskal Herrira bisita gehiago ere egin zituen. Horrela, badakigu 1930ean Legazpin ibili zela, honela esaten baitio Julio de Urkijori gutun batean: *“Yo cuando en agosto de este año rebusqué en el archivo de Legazpia los documentos más antiguos para coleccionar la toponimia más antigua....”*

Beraz, urrun bizi izanda ere, Legazpin sortutako hizkuntzalari hau grinatsu saiatu zen beti euskararen alde, haren denbora librearen ordu asko eta asko berari eskainiz. Eta buka dezadan hitzalditxo hau Gerhard Bähr-ek Azkueri idatzitako esaldi hau gogora ekarriz: *“Zeinnahi garaitan Euskalerriko gauzak darrizkit: batez ere euskara maitea”*.